

Euskal Erbestertuen Kulturari Buruzko Biltzarra

IDAZLE ETA KAZETARI GIPUZKOARRAREN ERBESTERATZEARI BURUZ MINTZATU DA EHUKO IRAKASLEA DONOSTIAN

Paulo Iztueta: «Euskaltzaleen arteko ideien zentsura salatu zuen Orixek»

■ Aitzolek Amerikako erbestealdian bere testuak zabaltzeari jarritako trabak azaldu zituen Orixek apenas ezaguna den idazki batean

■ Iztuetaren iritziz, «haurtzaroko erbesteratze animikoa dago Orixeren frustrazio guztien oinarrian»

■ Pako Sudupe: «Abertzaletasuna ikuspegi berrietara zabaltzeko beharraz ohartarazi zuen gizona izan zen Andima Ibiñagabeitia»


Jon Eskisabel / Donostia

NICOLAS ORMAETXEA 'ORIXE'-REN (1888-1961) erbesterearen autorretratuak izeneko hitzaldia eskaini zuen Paulo Iztuetak atzo, Euskal Erbestertuen Kulturari buruz Donostian egiten ari den Biltzarrean. Orixeren inguruko «etnografia eraikitzailea» azaldu zuen Iztuetak, eta horretarako, idazle eta kazetari gipuzkoarrak idatzitako zenbait poematan eta entzule gehienontzat ezezagunak ziren zenbait dokumenturen aipamenean oinarritu zen EHUko irakaslea.

Lau erbesteratze mota izan zituen Orixek, Iztuetaren arabera. Horietako lehena haurtzarokoan, berea ez zen familia batean hazi izanaren ondorioz. Erbesteratze animikoa deitu zion Iztuetak. «Orixeren frustrazio guztien azpian dagoen oinarritzko erbesteratzea da», adierazi zuen. *Quitto'n arrebarekin* liburuan idatzitako *Bi ama ta amarik* ez esaldia horren lekuko litzateke. «Amarik ezaren sentimendu horrek utzitako hutsunak zulerik beltzenean hondoratu zuen Orixeren espiritua, eta zurrumbilo horretatik aterazinean aurkituko da bere bizitza osoan. Erlojuaren tiktak konpasatuaren antzera, amarekikoa beti kolpez aritu zitzaion barruan; egiazki erbesteratua sentitu zen, familiarik eta lagunengandik urrundua, eta sakonean psikologikoki desorekatua».

Erbeste erlijiosoa

Iztuetak aipatutako bigarren erbesteratzea erlijiosoa izan zen. Jesuiten Lagundian 17 urterekin sartu zen Orixek, eta, 35 urterekin, kanporatu zuten. Duela gutxi arte ez da jakin zergatik kanporatu zuten, baina, Orixek berak testamentu gisa idatzitako *De mi vida externa* izeneko idazkian azaldu zuenez,



Guillermo Etxebarria aurkezlea eta Paulo Iztueta irakaslea.

PAULO IZTUETA

Erbeste kulturala

■ ■ ■ *«Erbestetik itzultzean kultur militantismoan baztertua sentitu zen Orixek, egiazki erbesteratua eta bere lanean gutxietsia»*

Ledochowski Lagundiako jeneral poloniarren erruz behartu zuten konpainia uztera. «Gogoz eta sentimenduz» jesuita izaten jarraitu zuen Orixek, Iztuetak azaldu zuenez, baina geroago «bi barne bulkada menperagaitz gertatu zitzaizkion: apaiz izateari uko egin beharra eta kondenatua sentitzea». Iztuetaren iritziz, erbesteratze erlijiosoa horrek ez zion atsedetik eman. «Orixeren poesia mistikoak ez luke indar bera izanen, baldin eta horietan agertzen dituen gogoetak bere barne bizipen ezin egiazkoagoen isla ez

balira. Erbesteratze erlijiosori ematen dion erantzun zehatza da bere poesia, barruak eskatzen dion espiritua janaria, haragi bihurtutako hitz poetikoa, bere buruarekin bakeak egiteko beharrezkoa duena», esan zuen Iztuetak.

Iztuetak aipaturiko Orixeren erbesteratzearen artean kulturala izan zen harrigarriena eta nobedosoena. Izan ere, Amerikako erbestealdia (1950-54) Orixeren literatur sorkuntzaren garai oparoena izan arren, Aitzolekin ez zuen harreman onik izan. Iztuetak atzo irakurritako idazki batean, bere lanak zabaltzeko trabak jartzea leporatzen zion Orixek Aitzoli. Iztuetaren ustez, «Orixek gordin asko salatu duena ideien zentsura da. Euskal kulturaz jardutean frankismoak sistemaz eragindako zentsura aipatu ohi da, arrazoi osoz. Orain, Orixek irakurritik ikasi dugu gure aurreko euskaltzaleen artean ere praktikatzeko zela zentsura».

Kulturgintza modu berrien zabalpena, Eusko Jaurlaritzaren kultur politikarekiko ezadostasuna eta belaunaldi sekular, pluralista eta ezker-tiar baten sorrerak Orixeren erbesteratze kulturala sakondu zuten. «Orixek kultur militantismoan diskriminatua sentitu zen, egiazki erbesteratua, bere lanean gutxietsia. Horren ondorioz, Orixeren ospea eta mitoa bere gorputzarekin batera lurperatuta geratu ziren», azaldu zuen Iztuetak.

Denbora falta zela eta, erbesteratze politikoan ez zuen gehiegi sakondu Iztuetak. «Ez zen ezin alderdi politikitik sartu. Euskara eta erlijioa ziren haren helburuak, baina foruzalea zen, eta nazionalista, zentzu autonomistan. Erabat autonomoa zen bere pentsamolde eta jokamoldeetan, eta gardentasun etiko handikoa», adierazi zuen.

Euskal errepublika liberalaren aitzindaria

■ ANDIMA IBIÑAGABEITIA izan zen Euskal Erbestertuen Kulturari buruzko Biltzarrean atzo goizeko saioan aztertu zen beste pertsonaia. Pako Sudupe irakasle eta idazle azkoitiarrak azaldu zuenez, abertzaletasunak planteamendu historikotatik ikuspegi berrietara jauzi egin behar zuela oharta-

razi zuen pertsona izan zen Ibiñagabeitia. «Caracasen sortutako *Irrintzi* aldizkaritik, Ibiñagabeitiak dei egin zuen abertzaleak elkartzeko, gure indarretan sinisteko eta beste herri txikiekin batzeko. Ibiñagabeitiaren ustez, abertzaletasun historikoak paso eman behar zion belaunaldi berriari, baina bik

bat egin behar zuten euskara indartzeko eta independentzia eta askatasun osoa bilatzeko, autonomi estatutua ez baitzen nahikoa». Ibiñagabeitiak «aitzindari izan beharko luke euskal errepublika euskaldun eta liberala bultzatzen ari direnentzat», adierazi zuen Sudupek. Bere hitzaldian, Ibiñagabeitiaren lan

politikoaren bilakera azaldu zuen Sudupek, gehienbat entzule gazteei zuzenduta. Horrela, frankismoaren aurka eta CIAren diruarekin osatutako espionatza taldean izan zuen eginkizuna azaldu zuen. Halaber, euskal literatura arlo berrietara zabaltzeko ahalegina egin zuela esan zuen.